

JON GOTZON ETXEBARRIA

Barriro esi daigun ludijaren gerrija.
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Itxaruak berua euzkotarren ontzia
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxa-sora, 146. orrialdea.-Bilbo, 1931)

P l i n i o G a z t e a

e s k u t i t z a k

Λόγος δυνάστης μέγας ἔστιν
(Gorgias, "Helena" 8-9)

1
2

εἰς τήν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

JON GOTZON ETXEBARRIA

Plinio Gaztea
eskutitzak

εἰς τὴν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

liburu-sorta
GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI - 1097 - 89

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

PLINIO GAZTEA

Komo-n jaio zen,K.o.-Ko 61 edo 62. urtean:L.Kaekilio Segundo,osasunez makal,buru argikoa.Hamalaue urtekoa zelarik,tragedia greko bat idatzi zuen.Zuzenbide eta Retorika ikasia,Kintiliano-ren ikaslea.

Politikan Kargu handiak hartutako-a;azkena Bitinia-Ko gobernaria, Kristauen aurkako jazarpen aldieta.Philosophian estoikoen eskola-Koa zen.

Eskutitzen X. liburua administrazio-arazoekiko da.Enparau eskutitzak argitaratzeko asmoz idatziak, berezkotasuna zerbait galdurik,oso landuak ageri dira irakurleko erromatarri atsegina ematearen, noski.Jakingarriena hauxe:orduko gertaerak,ohiturak eta pertsonaiak agerrarazten dizkigula,argi eta txairio.Hamargarren liburuko eskutitzetan,gobernariak bere nagusiarrekin dituen hartu-emanetan,interes historikoa nabarmena da eta iturri ezin hobea dugu historiarekiko puntu asko argitzeko.

BIBLIOGRAPHIA:

M.Schuster,Bibl.Teubner., "Plinius Minor,opera";Leipzig,1933.
L.Zenoni,"Plinio,Epistole scelte";
Venezia,1924.
Vicente Blanco Garcia, "Plinio el Joven,Cartas,I";Madrid,1950.
C.Sicard, "Pline Le Jeune,Lettres, livres I-V";Classiques Garnier,Paris.

Hemengo eskutitz guztiak 1. liburu-
rutik hartuak dira.

Jon Gotzon Etxebarria
Gernika
1989,maiatza

C. PLINII SECUNDI
EPISTULÆ

LIBER PRIMUS

I. — C. PLINIUS SEPTICIO SUO S.

Frequenter hortatus es ut epistolas, si quas paulo accuratius scripsissem, colligerem publicaremque. Collegi, non servato temporis ordine (neque enim historiam componebam), sed ut quæque in manus venerat. Superest ut nec te consilii, nec me paeniteat obsequii. Ita enim fiet ut eas, quæ adhuc neglectæ jacent, requiram. et, si quas addidero, non suppressam. Vale.

K.Plinio-k Septikio adiskideari
bihotzez:

Sarritan eskatu didazu nire esku-titzak, ardura apur batez idatzirik zeudenak, behintzat, bildu eta argitara eman ditzadan. Bilduak ditut, ez aldiari dagokion hurrenkeraz (ez bait nintzen historia idazten ari) baizik eta eskura etorri ahala. Gauza bat baizik ez zaigu peitzen, zu zure aholkuaz eta ni nire aginduaz damu ez izatea. Beraz, oraingoz ahaztuke ditudanak bilatuko ditut eta, berririk eginez gero, ez ditut baztertuko. Agur.

Literaturazko obra batean, hitz-aurre edo eskaintza gisa, lagun batentzako eskutitza atari moduan sartzea, oso modakoa zen Plinio-ren garaian.

Martzial-ek bere epigrama-liburu batuetan eta Kintiliano-k bere "Institutiones Oratoriae"-etan ere antzera egiten dute.


Gogora, bestalde, gure Etxepare-k, Axular-ek eta Leizarraga-k egin zu-tena; geroagoko beste batzu ez ai-patzearen.

K.Plinio-k Pompeia Kelerina bere
amaginarrebari bihotzez:

IV. — C. PLINIUS POMPEIÆ CELERINÆ SOCRUI S.

Quantum copiarum in Oriculano, in Narniensi, in Carsulano, in Perusino tuo! In Narniensi vero etiam balineum! Ex epistulis meis (nam jam tuis opus non est) una illa brevis et vetus sufficit. Non, mehercule, tam mea sunt, quæ mea sunt, quam quæ tua. Hoc tamen differunt, quod sollicitius et intentius tui me, quam mei excipiunt. Idem fortasse eveniet etiam tibi, si quando in nostra deverteris. Quod velim facias, primum ut perinde nostris rebus, ac nos tuis, perfruaris; deinde, ut mei expurgiscantur aliquando, qui me secure ac prope neglegenter exspectant. Nam mitium dominorum apud servos ipsa consuetudine metus exolescit; novitatibus excitantur, probarique dominis per alios, magis quam per ipsos, laborant. Vale.

Hori horriduraren ugaria Okrikulo, Marnia,Karsula eta Perusa-ko zure etxaldeetan!Eta Marnia-koan bainugela ere bai,nire eskutitzak direla eta!Zurerik,honez gero,ez da behar;behinolako laburto hura aski izan da.Hala fede!Neureak direnak ez ditut zeureak bezain nire; alde hau dago,baina:zureek (zerbitzariek)nireek baino ardura eta arreta handiagoz atosten naute-la.Beste horrenbeste gertatuko zaizu,noski,gurera behin etorriz gero.Etor zaitezen nahi nuke,lehenengo,zu gure gauzez goza zaitez-en ni zureez bezala;bigarren,nireak(zerbitzariak)bizkor daitezen,noizbait,lasai eta ia alfer samar egoten bait dira nire zain.Ugazaba bigunen zerbitzarien artean ohituraren ohituz beldurra moteldu ohi da,gauza berriez zuhurtu ohi dira eta nagusien gogo-koak izaten saiatzen dira,beste batzuren bidez nagusien bidez baino gehiago.Ajur.



Ocriculum, gaurko Otricoli.
Narnia, gaurko Narni.
Perusa, etruskoen lurrean, Tiber-eti-
ik hur, Trasimeno lakutik urrun ga-
be.

VI. — C. PLINIUS CORNELIO TACITO SUO S.

Ridebis, et licet rideas. Ego ille, quem nosti, apros tres, et quidem pulcherrimos, cepi. Ipse? inquis. Ipse : non tamen ut omnino ab inertia mea et quiete discederem. Ad retia sedebam : erant in proximo, non venabulum aut lancea, sed stilus et pugillares. Meditabar aliquid enotabamque, ut, si manus vacuas, plenas tamen ceras reportarem. Non est quod contemnas hoc studendi genus. Mirum est ut animus agitatione motuque corporis excitetur. Jam undique silvæ et solitudo, ipsumque illud silentium quod venationi datur, magna cogitationis incitamenta sunt. Proinde cum venabere, licebit, auctore me, ut panarium et lagunculam, sic etiam pugillares feras. Experieris non Dianam magis montibus quam Minervam inerrare. Vale.

K.Plinio-k Kornelio Takito
adiskideari bihotzez:

Barre egingo duzu; bai, egizu. Nero-nek, zuk dakizun honek, hiru basurde hatzeman ditut, eta ederrak, hala fedet?"Nork, eta zeuk?", esanen duzu. Bai, neronek; eta egoneango atseden-aldiari guztiz utzi gabe. Sareen ondoan eserita nago; hurbilean ez azkonik, ez lantzarik; estiloa eta oholtxoak. Zerbait hausnarrean nerabilen eta idazten ari nintzen, esku hutsik etorri behar izanez gero, argizariak, behintzat, beterik ekartzeko. Ez uste ikasteko modu hau gitxiestekoa denik, gero; berebizikoa duzu, gorputzaren higieraz eta eraginaz gogoari ere eragiteko. Hasteko, basoz inguratuta egotea, bakardadea eta ehizaldian den i-siltasuna bera ere oldozmenaren zirikatzale handiak dira. Beraz, ehizatan zoazenean, neuk diotsut, ogi otartxoa eta ur ontzia ez ezik, oholtxoak ere bai eroan egikezuz. I-kusiko duzu nola Diana ez dabilen mendietan Minerba baino gehiago. Agur.

stilus (non stylus), i, m., tout objet en forme de tige pointue, ¶ 1 pieu : *stili cæci* B. AFR. 31, 5, pieux dissimulés || instrument d'agriculture : COL. 11, 3, 53 || tige de plante : COL. 11, 3, 46, etc. ¶ 2 style, poinçon pour écrire : *stilum prendre* CIC. Br. 93, prendre son style, sa plume ; *orationes pæne Attico stilo scriptæ* CIC. STILI 2 Br. 167, discours qu'on dirait écrits par une plume attique; [jeu de mots avec instr. d'agriculture : CIC. de Or. 2, 96] ; *stilum vertere in tabulis* CIC. de Or. 2, 101, passer le style renversé sur des tablettes [se servir du bout aplati], effacer, cf. HOR. S. 1, 10, 72



(Dictionnaire Illustré Latin-Français; Félix Gaffiot; Hachette, Paris)

STILUS:marfilezko edo metalezko eztena, argizariz estalitako oholtxoetan idazteko. Goiko aldea zapala izaten zen, idatzitakoa ezabatu ahal izateko, oholtxoak berriro erabiltzeko.
Oholtxo horiek zurezkoak edo marfilezkoak izaten ziren eta beltzez margozturik zeuden. Horrela, eztenaz sakatu eta hizkiak beltz agertzen ziren.

XI. — C. PLINIUS FABIO JUSTO SUO S.

Olim mihi nullas epistolas mittis. « Nihil est, inquis, quod scribam. » At hoc ipsum scribe, nihil esse quod scribas; vel solum illud, unde incipere priores solebant : « Si vales, bene est; ego valeo. » Hoc mihi sufficit; est enim maximum. Ludere me putas! serio peto. Fac sciam quid agas. Quod sine sollicitudine summa nescire non possum. Vale.

K.Plinio-k Fabio Iusto
adiskideari bihotzez:

Aspaldiska ez didazu eskutitzik bat ere bidali.Ez dut zer idatzi-rik,diostazu.Ba,horretarakoxe ida-tzi:ez duzula ezer idaztekorik esateko. Edo gure aurretikoek ohi zutena bakarrik esateko,hasierako "Ongi bazaude,ondo da;nihaur ere ongi",harako hora.Aski duket horrekin;horixe bait da garrantziz-Koena.Txantxetan ari naizela uste al duzu?Benetan egin dizut eskea. Ea,egizu jakin dezadan zertan ari zaren;ezin bait dut ezjakinean e-gon,larriki kezkatu gabe.Agur.

XV. — C. PLINIUS SEPTICIO CLARO SUO S.

Heus! tu promittis ad cenam, nec venis! Dicitur jus : ad assem impendium reddes nec id modicum. Paratæ erant lactuæ singulæ, cochleæ ternæ, ova bina, halica cum mulso et nive (nam hanc quoque computabis, imo hanc in primis, quæ perii in ferculo), olivæ, betacei, cucurbitæ, bulbi, alia mille non minus lauta. Audisses comœdum, vel lectorem, vel lyristen, vel, quæ mea liberalitas, omnis. At tu, apud nescio quem, ostrea, vulvas, echinos, Gaditanas maluisti.

Dabis pœnas, non dico quas. Dure fecisti : invidisti, nescio an tibi, certe mihi, sed tamen et tibi. Quantum nos lusissemus, risissemus, studuissemus! Potes apparatus cenare apud multos; nusquam hilarius, simplius, incautius. In summa, experire; et nisi postea te aliis potius excusaveris, mihi semper excusa. Vale.

K.Plinio-k Septikio Klaro

adiskideari bihotzez:

Zu,zer?Afaritara etorriko zarela eta gero agertu ez!Horra epaia: azkenengo txanponeraino ordainduko didazu egindako gastua,eta ez ge-ro,txikia.Dena zegoen prest:uhaza bana,barraskilo samurrik,bina arr-aultze,ardo-eztizko edaria,elurra ipinita,(berau ere ordaindu behar-ko,eta lehenena,gainera,gurditxoan eraman bitartean desegiten bait da),olibak.zerbak,kalabazak,kipul-ak,eta beste ainitz jaki bikain. Antzezlaria entzungo zenukeen,ira-kurlea edo lira-jolea,edo nire es-ku zabalak eskainitakoak oro.Zuk, berriz,ez dakit norenean,ostrak, urdeme-sabelkiak,itsas-lakatzak eta Gadestarrik gurago izan dituzu. Hartuko duzu zigorra,ez diot zein. Gaizki egin duzu;zuri ez dakit, baina niri bai,ezetza eman didazu, eta zeuri ere bai,agian.Hango ba-rreak,kontu kontari,eta zenbat so-lasaldi egingo genukeen!Beste as-koren etxeank,bai,afari ugariagoak izango dituzu,baina gurea bezalako

poza,bakuntasuna eta lasaitasuna,
nekez.Proba ezazu eta gero,beste-
engana ez joateko aitzakiarik ez
baduzu,eman niri beti ezetza.Agur.

Afaria errromatarrentzat jatordu-
rik nagusiena zen.
Elurra,ardoa hotz mantentzeko.
Ferculum:jatekoak eroateko azpila,
gurditxoa edo.
Gades-Ko dantzari ospetsuak,jator-
duan alaikiro ari izaten zirenak.

XVII. — C. PLINIUS CORNELIO TITIANO SUO S.

Est adhuc curæ hominibus fides et officium : sunt qui defunctorum quoque amicos agant. Titinius Capito ab imperatore nostro impetravit, ut sibi liceret statuam L. Silani in foro ponere. Pulchrum et magna laude dignum, amicitia principis in hoc uti, quantumque gratia valeas, aliorum honoribus experiri ! Est omnino Capitoni in usu claros viros colere. Mirum est qua religione, quo studio imagines Brutorum, Cassiorum, Catonum domi, ubi potest, habeat. Idem clarissimi cujusque vitam egregiis carminibus exornat. Scias ipsum plurimis virtutibus abundare, qui alienas sic amat. Redditus est L. Silano debitus honor, cuius immortalitati Capito prospexit pariter et suæ. Neque enim magis decorum et insigne est statuam in foro populi romani habere quam ponere. Vale.

**K.Plinio-k Kornelio Titiano
adiskideari bihotzez:**

Gizonei oraindino axola zaie lei-alasun eta eginbeharragatik; hil-dakoekin adiskide gisa jokatzen dutenak ere badaude. Titino Kapito-k gure Enperadoreari L.Silano-ren estatua enparantzian ipintzeko baimena eskatu dio. Gauza ederra eta guztiz aipagarria agintarien adiskidetasunaz hortaroko baliatzea, besteren ohoretan norberak duen eragipena erabiltzea. Aitortu beharra dago, Kapito-k gizon argiak goraltzeko ohitura ditzu. Harritzekoada nolako jaieraz eta ahaleginez dituen etxeana, eta ahal duen lekuaren Bruto, Kasio eta Katon-en irudiak. Era berean, gizon argien bizitza neurtitz ederretan goresten daki. Egia, ainitz birtutetan gailentzen da inorenak horrela maite dituena. Zor zitzaison ohorea eman zaio L. Silano-ri; beronen eta bere hilezkortasunaz arduratu da: Ez bait da ohore eta ospe handiagoa errromatarren enparantzian estatua bat edukitzea ipintzea baino. Agur.

C. I. L., V, 5279.

7. L.CAECILIO.L.F.VALENTI.ET.P.Caecilio.l.f.secundo.et.lvtillae.p.ip cti.f.contvbernal.
AETAS . PROPERAVIT . FACIENDVM . FVIT . NOLI . PLANGERE . MATER . MATER
ROGAT . QVAM . PRIMVN . DVCATIS . SE . AD . VOS .

Kono-n jasotako idazkuna.

Bruto-ren arreba zen Kasio-ren
emaztearen hiletetan ez bait zen
agertu errepublikazale handi hori-
en irudirik.

XVIII. — C. PLINIUS SUETONIO TRANQUILLO SUO S.

Scribis te perterritum somnio, vereri ne quid adversi in actione patiaris. Rogas ut dilationem petam, et pauculos dies, certe proximum excusem. Difficile est; sed experiar :

.... Καὶ γάρ τ' ὅναρ ἐξ Διός ἔστιν.

Refert tamen, eventura soleas, an contraria somniare. Mihi reputanti somnium meum, istud, quod times tu, egregiam actionem portendere videtur. Suscepseram causam Julii Pastoris, cum mihi quiescenti visa est socrus mea advoluta genibus, ne agerem obsecrare. Et eram acturus adulescentulus adhuc; eram in quadruplici judicio; eram contra potentissimos civitatis, atque etiam Cæsaris amicos; quæ singula exutere mentem mihi post tam triste somnium poterant. Egi tamen, λογισάμενος illud,

Εἴς οἰωνὸς ἄριστος ἀμύνασθαι περὶ πάτρης.

Nam mihi patria, et si quid carius patria, fides videbatur. Prospere cessit; atque adeo illa actio mihi aures hominum, illa januam famæ patefecit.

**K.Plinio-k Suetonio Trankilo
adiskideari bihotzez:**

Idazten didazunet, amets batek ika-raturik, epaiketan zerbait aurkako jasango ote duzun beldurrez zaude. Luzapena eska dezadan arren dagis-tazu, eta egun batzutarako, hurrengorako gitxienez, zuritu zaitzadan. Zaila den arren saiatuko naiz:

Ametsak Zeus-engandik datozen eta. Arduratzeko da, hala ere, gertakizunak ala aurkakoak amesten dituzun. Nire amets bat gogoratu eta zuk beldurra diozun horrek auzi bikaina ematen du aditzera. Julio Pastor-en auzia nire gain hartua nuen, eta atseden hartzen nengoela, horra non agertzen zaidan nire amaginarreba belaunetan ahozpezu, au-zitara ez joateko eskatuz. Oraindino gazte samar nintzela nindoan epaiketan aurkezterea; auzi laukoitz batean nengoena, hiriko ahaltsuene-tarikoen aurka niharduen, eta baita Kesar-en adiskideen aurka ere. Bata zein bestea aski zen nire gogoan nahasteko halako amets ilunaren ondoren. Auzitara joan nintzen, alabaina, nire barrurako esanez: Aberrriaren alde jardutea zantzurik

Proinde dispice an tu quoque sub hoc exemplo somnium istud in bonum vertas; aut, si tutius putas illud cautissimi cuiusque praeceptum, « quod dubites, ne feceris, » id ipsum rescribe. Ego aliquam stropham inventiam, agamque causam tuam, ut istam agere, cum tu voles, possis. Est enim sane alia ratio tua, alia mea fuit. Nam judicium centumvirale differri nullo modo, istud ægre quidem, sed tamen potest. Vale.

onenetarikoa.

Nire leialtasuna niretzat aberria adina zen,edo eta aberria bainoago.Ongi joan zen dena;ekintza hark benetan gizonen belarriak zabalduzizkidan eta entzutearen atea.

Beraz,izan zaitez zuhurra,adibide honen arauera,eta amets hau onerako bihurtu. Edo,bestela, zentzuden-enen agindua ziurragotzat baduzu,"ezbaian ze egik ezer",berriro idatz iezaidazu.Bilatuko dut irtenbi-deren bat eta zure auzia atonduko dut,zuk nahi dezazunean aurrera eraman dezazun.Zure arrazoia,noski, nireaz besterakoa da.Ehun epaikarien epai hau ezin da inola ere atzeratu,beste hau,berriz,nekez bada ere,bai egin liteke.Ajur.

XXI. — C. PLINIUS PATERNO SUO S.

Ut animi tui judicio, sic oculorum plurimum tribuo,
non quia multum, ne tibi placeas, sed quia tantum,
quantum ego, sapis : quamquam hoc quoque multum est.
Omissis jocis, credo decentes esse servos qui sunt empti
mihi ex consilio tuo. Superest ut frugi sint, quod de
venalibus, melius auribus, quam oculis, judicatur. Vale.

K.Plinio-k Plinio Paterno
adiskideari bihotzez:

Zure barru-eritziarekin,eta orobat
zure begienarekin,benetan zorretan
nago.Ez,noski,gustu handirik duzu-
lako,harro ez zaitezen,nirearen
besteko gustua duzulako baizik.Eta
hau,egia esan,bada gauza handia.
Txantxetan ibili gabe,jopuak,zure
aholkuz erosiaak ditut,itzura one-
koak dira.Egokiak ere izango diren
ikusi egin behar.Salgai daudenean
hau begiz baino hobeto belarriz i-
garri ohi da.Ajur.



Jopu bat lanean loturik.

Esklabo batzu erosi dituela eta idazten dio Plinio-k lagunari.Eta pozik dago,erosi berri dituen jopuak gorputzez eta gogoz taju onekoak direlako.

Azokan salgai zeudenean,jopuek idazki batetan nondik ekarriak ziren eta nolakoak ziren erakusten zuten.Erosterakoan,baina,erostunak begiz beren gorputz-itxura bakarrik onets zezakeen.Osterantzeko alderdi onak ikusteko,aldiz,berarekin hizketan jardun behar.

XXIV. — C. PLINIUS BÆBIO HISPANO SUO S.

Tranquillus, contubernalis meus, vult emere agellum, quem venditare amicus tuus dicitur. Rogo cures quanti æquum est emat; ita enim delectabit emisse. Nam mala emptio semper ingrata est, eo maxime, quod exprobrare stultitiam domino videtur. In hoc autem agello, si modo arriserit pretium, Tranquilli mei stomachum multa sollicitant : vicinitas Urbis, opportunitas viæ, mediocritas villæ, modus ruris, qui avocet magis quam distringat. Scholasticis porro dominis, et hic est, sufficit abunde tantum soli, ut relevare caput, reficere oculos, reptare per limitem unamque semitam terere, omnisque viticulas suas nosse et numerare arbusculas possint. Hæc tibi exposui, quo magis scires quantum ille esset mihi, ego tibi debiturus, si prædiolum istud, quod commendatur his dotibus, tam salubriter emerit, ut pænitentiae locum non relinquat. Vale.

K.Plinio-k Bebio Hispano
adiskideari bihotzez:

Trankilo nire lagunak soro ttipi bat erosi nahi du,zure lagun bat saltzekotan dabilena.Egizu ahalegina,otoi,prezio onean eros dezan; horrela erosiz gero poz hartuko dugu.Erosketa txarra beti ere mingarria,batez ere jabearen zentzunik eza erakusten duelako.Gure soro hau dela eta,berriz,salneurria gogokoa badu,gauza askok erakartzen dute nire lagunaren gogoa:hirriaren hurbiltasunak,behar denezko bideak,landetxearen egokitasunak,alderdi horren egoerak,era-karri gehiago egiten bait du uxatu baino.Gurea bezalako jabe eskola-tuentzat,gainera,aski da horrelako lur-arloa:burua arindu,begiak atsegindu,bazterrak arakatu,beti bideska bera zapaldu,mahats aihenak ezagutu eta zuhaiskač zenbatu ahal izateko modukoa izatea .Zer guztiek azaldu dizkizut argi ikus dezazun zordun natzaizula hura nirekiko zorretan den neurrian,eskaintzen den horrelako lur-arlotxoa hain prezio onean eros baleza,gero damutu egiteko aukerarik gabe.Agur.

Stomachus,i: urdaila;egostaldia;
gustua;aldarte txarra.
Stomachor(aditza):haserretu,mindu.
Cfr.gaztelaniaz:*hay que tener
estómago para aguantar eso!Se me
está estomagando este asunto!*
**Euskaraz:barru txarra eraku-
tsi;ez egin odol txarrik horrega-
tik.**

INDEX NOMINUM

	<u>orrialdea</u>
Bebio Hispano.....	35
Bruto.....	23
Diana.....	13
Fabio Iusto.....	17
Julio Pastor.....	27
Karsula.....	9
Kasio.....	23
Katon.....	23
Kesar.....	27
Kornelio Takito.....	13
Kornelio Titiano.....	23
Luzio Silano.....	23
Minerba.....	13
Narnia.....	9
Okrikulo.....	9
Perusa.....	9
Plinio Paterno.....	31

Ponpeia Kelerina.....	9
Septikio.....	7
Septikio Klaro.....	19
Suetonio Trankilo.....	27
Titino Kapito.....	23
Trankilo.....	35
Zeus.....	27